

Antxiñako fotografixia



Gerra aurreko turistak

Udabarrizan hasitta makiñatxo bat bixittari inguraketan xaku gure herrira, Oñatik dakon edertasunak eta gauza interesgarriak ezagutu guran. Eguraldixa apur bat hobeketan danian, jubiladu eta eskolame ugari etorten da unibersidadia, parrokixia, plazia, kaliak, auzuak, basuak, mendixak, Bidaurreta, Arantzazu eta beste gauza asko ikustera. Asteburuetan eta bakaziñuetan be kanpotar askok egitten dau inguru honeittatik jiratzua.

Baiña Oñati alderako jokeria ezta atzo goizekua. Lehenengo mundu-gerria akabo ondoren, kamioiak eta autobusak gehitu ziranian, turistak be ugarixago ikusi zittuan Oñatiko herrixak. Txurrukaneko arkupe aurrian agiri dan autobus deskapotable horretan hogeiren bat emakume doiaz euren kapela dotore eta guzti, herriko neskatilla-mutikuak kuriosidatez eta inbirixaz begiraketan dostein bittartian. Argazki honek 70 bat urte euki leike.

J.E.

Argazkixa KUTXAren bildumakua da eta Lurdes Romanok eskuratu dosku.

BATUAK, S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa • Industrialdea • 18 Posta Kutxatila
• Tfnoa: 78 11 15 Telefaxa: 78 32 63 • OÑATI (Gipuzkoa)

GOIZTIRI



Belardenda
Dietetika zentrua
Kontsulta naturista:

Oscar Castejón
Kale Zaharra, 18
Tfnoa: 71 63 00